

## GAIA: Frantziako Tourra

2023ko uztailaren 2an eta 3an, euskal erakundeek kirola oro har eta bereziki txirrindularitza sustatzeko egindako ahaleginaren ondorioz, 2023ko Frantziako Tourra Gipuzkoako errepideetatik igaroko da. Horrek milaka pertsonaren mugikortasunari eragingo dio probaren 2. eta 3. etapak jokatu diren egun horietan, erabat ezinezkoa izango baita Lurraldebusen errepidezko garraio publikoaren zerbitzu erregularra eman ohi duen errepideetan zirkulatzea.

Beraz, bai uztailaren 2an eta 3an, bai — aurreko egunetako prestaketa lanak direla eta— beste une jakin batzuetan, errepide batzuk, ezinbestean, ezingo dira erabili Lurraldebusen ohiko garraio publikoaren zerbitzurako. Lasterketa egunetan errepide batzuetan zirkulatzeko ezintasunak honako egun eta ordu hauetan eragingo du trafikoan: uztailaren 2an (igandea) eta 3an (astelehena), 09:00etatik 17:00etara.

Hala, Lurraldebusen lineetan eragin handia izango du, nahitaez. Horregatik, probaren aurreko egunetan informazio zehatzagoa emango badugu ere, erabiltzaile guztiei gomendatzen diegu alde aurretik planifikatu ditzatela garraio publikoaren ordezkotako aukerak.

## ASUNTO: Tour de Francia

Los próximos días 2 y 3 de julio de 2023, fruto del esfuerzo de las instituciones vascas por fomentar el deporte en general y el ciclismo en particular, Le Tour de France 2023 discurrirá por carreteras guipuzcoanas. Tal circunstancia provocará que, coincidiendo con las etapas 2 y 3 de la prueba en las citadas jornadas, se produzcan afecciones a la movilidad de miles de personas por la imposibilidad total de circular por las carreteras por las que se suministra regularmente el servicio de transporte público por carretera de Lurraldebus.

Por lo tanto, tanto durante los días 2 y 3 de julio como, puntualmente debido a labores de preparación en las jornadas previas, algunas carreteras quedarán irremediablemente inutilizadas para el servicio ordinario de transporte público de Lurraldebus. Las afecciones al tráfico en los días de carrera, dada la imposibilidad de circular por algunas carreteras, se producirán entre las 9:00 y las 17:00 horas tanto el domingo día 2 como el lunes 3 de julio.

Las líneas de Lurraldebus se verán grave e irremediablemente afectadas, y es por ello que recomendamos a todas las personas usuarias que, independientemente de la información más concreta de afecciones que facilitaremos en los días previos, planifiquen con tiempo alternativas de uso de transporte público.